


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ARRASATE 4



Egilea eta data: Carlos Ibero; 1904

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina eta lau goi oin dituena. Fatxada harlandua, bao zentralean zurezko begiratokia duena (1905eko proiektua). Jatorrizko proiektu komuna Arrasate 6rekin eta goi oinetan Bergara 15en dekorazio elementu berak dituena.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak eta begiratokia.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakora egokituko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.